

Begira

 **ULMA**

Uztaila 2004
6. ziklo.

BALANTZE SOZIALA Aurrera goaz



Beste begirada:
Ignacio Maiztegi

Ezagutu ditzagun gure Negozioak
ULMA Handling Systems



azpimarragarriena... aurkibidea



6

14



26

BEGIRA

LAGUNTZAILE-TALDEA;
Nora Altube, Roberto Mendi, Paloma del Valle, Nerea Zallo,
Peio Bengoetxea, Edurne Unzueta, J.M. Aguriondo

2004ko uztaila
Edizioa: Grupo ULMA
Diseinua: AZK Taldea
Inprimategia: ELKAR S. Coop.

Grupo ULMA S. Coop.
Otaui pas., 3 - 13 posta kutxatila. 20560 OÑATI
Tel.: 943 034900 Faxa: 943 780917
e-mail: begira@ulma.es



3 Hizpidea...

Egin dezagun balantzea.

4 Albisteak eta gaur egungo gaiak:

Merkatuak Orga Jasotzaileak alokatzeko apustua egin du

ULMA Packaging negozioak azken berrikuntzak aurkeztu ditu IFFA 2004 azokan

ULMA Forja negozioak Exxon-en homologazioa lortu du Fittingetarako

ULMA Construcción negozioak sektoreko azoketan parte hartu du

ULMA Handling Systems negozioak pieza eta unitateen sailkapenerako sistema automatiko berezia merkaturatu du: SURFING SORTER MINI.

14 Solasean:

Ruper Ordorika.

16 Egin dezagun balantzea

Balantze Soziala: Aurrera goaz.

18 Ezagutu ditzagun gure Negozioak

ULMA Handling Systems;
Logistikaren ikuspegi integrala.

20 Beste begirada

Ignacio Maiztegi.

22 Albiste osasungarriak

Kolesterola.

24 Zer deritzozu?

26 40 urte elkarrekin

27 Agenda eta iradokizunak

Erretiroa hartu dutenak

70eko urteei buruzko gehigarria

Ekitaldi zail baten balantze onargarria

2003 ekitaldia aurrekoak baino estuagoa izan da, nahiz eta Negozio batzuetan nahi baino gehiago sufritu. Talde osoari dago-kionez, ekitaldia nahiko nota onez gainditu dugula esan dezakegu; batez ere, gure inguruko industrien alderatzen badugu, ekonomiak gorabehera handia izan baititu.

Nazioarte mailako ekonomia ez da mugitu, edo hobeto esanda, gain-beherako joera izan du. Europak ez du lortzen aurreko urteetako egoeratik irtetea, Estatu Batuetako ekonomia ere ez dago beste batzuetan bezain indartsu, euroak dolarrarekiko izan duen nagusitasunak dolar-eremuko negozioak zaildu ditu, eta hori guztia asko igarri da ekitaldi honetan; hau da, bilakaeraren emaitzek nazioarte mailako merkaturak geldirik dagoela argi eta garbi adierazten duten ekitaldian.

Oraingo honetan, barne-merkatuari esker atera dugu aurrera ekitaldi hau. 2003 ekitaldian horrela izan den arren, konponbide horrek ez du etorkizunerako balio; kanpoko merkatuetan garatzen jarraitu beharra dugu, une batean zein bestean, barne-merkatua ahuldu egingo delako edo merkatutak behera egingo duelako. Prest egon beharra dugu, beraz, une hori iristen den garaian, kanpoko merkatuetan jarduteko moduko baldintzetan egoteko.

Beste maila batean, BEGIRaren ale honekin, bi urteko ibilbidea beteko dugu, gure Taldearen baitan komunikazio-funtzio garrantzitsua osa-

tuz. Dena hobetu daiteke eta horretan ahaleginduko gara. Egin ditugun kontsultak eta egiaztatzeak kontuan hartuta, gure bazkide-kolektiboaren iritziz, aldizkaria oso ondo betetzen ari da egokitu zitzaion egitekoa.

Ale honetan aurreko ekitaldiko balantzearen laburpena aurkeztuko dugu, arlo ekonomikoari eta sozialari dagokionean. Hori guztia gure Batzarretan azaldu dugu, eta gure iritziz, azterketa eta eztabaida sakonak egin ditugu kooperatiben ohiko organoetan.

Arlo ekonomikoan, eta ingurunearekin inolako alderaketarik egin gabe (enpresa asko egoera txarrean egoteak ez digu lasaitasunerako aitzakiarik eman behar), badago aztertzen ari garen ekitaldian arduratzeko moduko datu bat: Talde osoa kontuan hartuta, errentagarritasunaren gainbeherarako joera izan da. Joera horri buelta emateko helburuz, datozen ekitaldiei begira, guztiok, bakoitzak dagokion lanpostutik, onartutako helburuak lortzeko konponbideak bilatzeko urratsak proposatu beharko ditugu, gero eta konplexuagoa dirudien merkatu global horretan lehiatzeko.

Arlo sozialean, enplegu-osoaren bilakaerak –filialena barne–, kontuan hartzeko moduko hazkundera izan du, 174 lanpostu berri sortu baitira. Enplegu kooperatiboa (bazkide kopurua) ere dezente hasi da, 133 bazkide berri, hain zuzen ere.

Bestalde, 2003 ekitaldian ULMA Taldearen Antolaketa Proiektua

**José Luis
Madinagoitia**

ULMA Taldeko
lehendakaria



(UTAP) berrikusten aritu gara, proiektu hori 2004ko ekitaldian Talde osoari aurkezteko helburuz. Eta 2003 ekitaldian, Talde osoaren etorkizunerako berebiziko garrantzia izango duen beste proiektu bati hasiera eman zaio; hau da, Ordainketa Sistema Berria (barruan, CCSR Proiektu izenez ezagutzen dugu: Kontribuzio Konpromisoa-Ordainketa Sistema). Proiektu hori hainbat urtetarako plana da, eta ekitaldi honetan amaitu eta aurkezteko asmoa dugu.

Amaitzeko, eta bazkide taldearekin ardura bat konpartitzeko asmoz, gure Batzarrei eta bazkideek haietan duten parte-hartzeari buruzko aipamena egin nahi dut. Zer ari da gertatzen gure Batzarrekin? Goraipatu beharreko salbuespenak salbuespen, gure bazkideek interesa galtzen ari al dira?

Erantzukizun kooperatiboari erreparatuta, eta kooperatibisten eskubide demokratikotik abiatuta, badi-rudi egoera hori ez litzatekeela gertatu behar; hala ere, Batzarretako parte hartzearen gainbehera nabarmena dela kontuan hartuta, behar-beharrezkoa da Organo Nagusiek eta Zuzendaritza Organoek bilakaera horren inguruko gogoeta sakona egitea, egoera hori hobetzeko proposamen berriren bat bilatzen ahalegintzeko. Horregatik guztiagatik, mezu hau bidali nahi dizuet bazkide guzti-guztiei: egin dezagun gure bizitzaren zati bat hartzen digun erakundean, guk bazkide bakoitzak hartu dugun konpromisoari buruzko bakarkako gogoeta.

Merkatuak Orga Jasotzaileak alokatzeko apustua egin du

■ Estatuko merkatuak betidanik erreparoa izan duen arren mantentze-ekipoak alokatzerakoan, badirudi azken urteetan aldaketa gertatu dela esparru honetan, orain arte erostea izan baita joera nagusia; badirudi hurrengo urteetan ere alokatzeko joera hori nagusituko dela.

Aldaketa horretan eragin duten faktoreetako batzuk honako hauek dira: mantentze-ekipoen kostua hileroko gastu finkoa da; horrez gain, gero eta maizago berritzen da ekipoen eskaintza eta beste herrialde batzuen eragina ere nabaritu da, batez ere Europar Batasuneko herrialdeena, nolabaiteko kutsadura kulturala gertatuz.



Alokatzeko parkeen joera hori erabiltzen duten enpresen artean, besteak beste, honako hauek daude: **Fagor Electrodomésticos**, Nichiyu marka-

ko 100 orga baino gehiago dituena, eta Patricio Etxeberría enpresa-taldeko **Bellota** Herramientas SA, Mitsubishi markako 50 orga eta **Dambach** combi markako bi orga dituena. Duela gutxi, beste enpresa batzuk ere, hala nola Kataluniako **Casa Tarradellas** elikaduraren esparruko enpresa eta **LoMonaco** enpresa, latexeko koltxoak egiten dituena, bildu dira joera honetara.

Datozen urteetan alokairuaren sektorearen alderdirik garrantzitsuen enpresek bezeroei eskainiko dizkieten floten kudeaketarako zerbitzu integrala izango da. Zerbitzu hori zenbat eta osatuagoa eta profesionalagoa izan, orduan eta handiagoa izango da bezeroaren konfiantza eta asetasuna.

ULMA Construcción negozioak Poloniako BAUMA enpresa erosi du


■ Duela gutxi, ULMA Construcción negozioak BAUMA SA enpresa erosi du, herrialde horretako merkatuan sartzeko asmoz. BAUMA enpresak enkofratuen sistema industrializatuaren diseinuan, fabrikazioan, salmentan eta alokairuan egiten du lan eta %23ko parte-hartzea du Poloniako merkatuan; gainera, Errusiako edo Ukrainiako merkatuetan ere parte hartzeaz gain, Turkian, Kazajistanen, Lituaniako eta Ekialdeko Europako beste herrialde batzuetan ere banatzaileak ditu.

Duela 15 urte sortua, BAUMA enpresak 4 biltegi nagusi, 11 ordezkartza-bulego eta 3 bulego osagarri ditu Polonian, lantegi propioaz gain. 160 langile ditu eta 14 milioi inguruko fakturazioa du.

Poloniako merkatuan egindako eraikuntza sektorearen azterketari dagokionez, esan, 2001. urteko ekitaldian, sektore pribatuak egin zuela salmen-

ten %97. Inbertsioak hiri handietan kontzentratu dira: Varsovia, Poznanen eta Gdansk-en. Mendebaldeko Europako eraikuntza enpresa batzuk hitzarmen estrategikoak egin dituzte Poloniako enprekin, herrialde horrek etorkizunean dituen azpiegitura-proiektu handiak ustiatzeko. Adibidez, Polonian lehen postuan den BUDIMEX enpresaren %65 FERROVIAL-Agroman enpresaren esku dago.

Eraikitako etxebizitzaren kopuruak behera egin zuen 1985 (190.000) eta 1996 (62.130) artean, eta hortik aurrera gorantz hasi zen berriro. 1997. eta 1998. urteetan eraikitako etxebizitzaren kopurua %11,9 eta %9,4 hazi zen, 73.700 eta 80.600 etxebizitza eraikiz, hurrenez hurren. Hazkunde horrek eraikitako etxebizitzaren kopurua handitu zuen eta 2001. urtean 105.967 etxe eraiki ziren eta 2002. urtean 97.595.



Etxebizitza berrien eskaera izugarria dago, ekonomiaren dinamismoak eta hiri handietako biztanleriaren errenten gorakada azkarrak bultzatutakoa; gainera, gero eta gehiago dira lan-merkatuan parte hartzen hasi diren gazteak. Bestalde, errepideetan eta zubietan, araztegietan, industrian eta azpiegitura militarrean hazkunde garrantzitsuak aurreikusten dira baita ere.

BA AL ZENEKIEN...

- ULMA Forja negozioak zelula automatizatua erosi du kanpoko diametroa gehienez 814 mm-koa duten briden mekanizazio integralak egiteko; neurri hori bat dator 24" 150 bridarekin eta piezaren gehienezko pisu gordina 380 Kg-koa izan daiteke. Zelulak honako elementu hauek ditu: erremintak garraiatzeko 5 posizioko dorretxoak eta 800 mm-ko atzapar-platera dituzten CNC 2 tornu, ardatz aldakorra eta 800 mm-ko diametroko atzapar platera duen bi buruko zulatzeko makina bat, zuloak abeilanatzeko gailu bat, zigilatze gailu bat eta bridaren manipulazio osoa egiteko multzo bat, 30 minutuko autonomia duen sarrera-zinta barne. Manipulatuak hauek instalazioa osatzen duten makinaren artean bridaren transferentzia automatikoki egiten dute. Prestatutako lanerako planaren arabera, 2005. urteko ekainaren 1etik aurrera instalazioa guztiz amaituta egongo da eta produkzio-fasea hasiko da.



CEGA Multidistribución enpresak ULMA Handling Systems negozioaren esku utzi du Barne Logistikaren automatizazioa.

CEGA Multidistribución enpresak, CEGASA Taldeko Operadore Logistikoak, Gasteizko Banaketa Zentroko instalazioak hobetzeko apustua egin du eta ULMA Handling Systems negozioaren esku utzi du hobekuntza hori. Instalazio berriek 45.000 palet inguru biltegitzeko gaitasuna izango dute; lehenengo faseak, 14.000 palet hartuko dituenak, sistema automatiko aurreratua izango ditu, hala, lan guztiak optimizatu ahal izateko, bezeroei kalitate-baldintza onenak eta zerbitzuaren azkartasuna bermatuz. Irtenbide hori ULMA Handling Systems negozioak eta CEGA Multidistribución enpresak diseinatu dute eta biltegitzeko eta eskaerak prestatzeko sistema automatiko bat izango du, picking postuekin eta pala osoen sarrera/irteera puntuekin. CEGA Multidistribución enpresak 40 urte baino gehiagoko eskarmentua du fabrikazioaren, elikagaien banaketaren, kontsumorako produktuen edo zerbitzuen esparruetan hainbat sektoretako enpresei logistikako zerbitzu integralak eskaintzen. Sistema 2004. urte bukaeran martxan jarriko dela aurreikusi da.

ULMA Hormigón Polímero negozioak POINT.P Talde frantsesarekin merkataritza-harremanak hasi ditu

Duela gutxi, ULMA Hormigón Polímero negozioak Frantziako erakuntzako materialen banatzaile-kate handienarekin merkataritza-harremanak hasi ditu, POINT.P Taldearekin hain zuzen ere; 1.400 biltegi baino gehiago ditu eta SAINT-GOBAIN Taldearen barnean dago enpresa hori. ULMAk drainatze-bideak salduko dizkio POINT.P Taldeari eta Frantziako talde honek banaketa egiten 11 zonetatik 2tan



salduko dira, Marseille-Nizan eta Lyon-en hain zuzen ere. Gaur egun, ULMA Hormigón Polímero negozio-ko arduradunak POINT.P Taldearen salmenta-sarearen prestakuntza tekniko eta komertziala egiten ari dira.

ULMA Packaging negozioak azken berrikuntzak aurkeztu ditu IFFA 2004 azokan


■ Joan den maiatzean IFFA azokaren edizio berri bat ospatu zuten Alemanian, Frankfurt-en zehazki; azoka hau haragiaren sektoreko nagusienetakoa da mundu-mailan eta 43 herrialdetako 852 erakusmahai eta 55.000 bisitari inguru izan zituen. Merkatuaren nazioarteko maila altua islatzen duen erakusmahaien eta bisitarien profila du azoka honek eta IFFA azoka nagusia izan da haragiaren sektorean azken 50 urteetan. Hiru urtetik behin maila hori berresten du, haragiaren industriako sektore eta produktuen aukera bikaina eskainiz. 308 m²-ko erakusmahai ezarri zuten bertan ULMA Packaging negozioak

eta sektore honetarako bereziki prestatutako aukera zabala eskaini zuten; zehazki, linea desberdinetako makinak lau modelo berri aurkeztu ziren: Termozigilaketa, Termoformaketa eta Flow Pack-a.

Modelo guztiak produkzioko linea automatikoetan txertatzeko prestatuta daude. Diseinu eta fabrikazio-prozesuetan haragiaren sektoreak eskatzen dituen kalitate-arau guztiak hartu dira kontuan, hau da, higieinarekin lotutako kontzeptuak hartu dira kontuan batez ere, haragia ukituko duten elementu guztien garbiketa errazteko, izan ere, elementu horiek oso erraz eta azkar desmuntatzen baitira.

Azalerek malda apur bat dute, prezio makinekin garbitu ondoren ura maldan behera irrista dadin; haragi-aztarnak gelditu daitezkeen tolesturak edo zuloak kendu dira, armairu elektrikoek eta agintepantailek IP.67 estankotasun-araua betetzen dute eta, jakina, material guztiak herdoilgaitzak dira eta haragiaren industriarako homologatuta daude.

ULMA Packaging negozioko esportazio-arduradunek azoka oso interesgarria izan zela esan zuten, bai jasotako bisitengatik –aurreko edizioan baino %20 gehiago– eta baita horien kalitateagatik ere.



Laneko mediku berria ULMA Taldean. Joan den maiatzetik Anabel Luengo da ULMA Taldeko enpresa mediku berria. Fagor enpresatik dator eta ULMAko Segurtasun eta Osasun Arloaren barnean lan egingo du, laneko mediku gisa. Anabelek 45 urte ditu, ezkondua da eta bi seme-alaba ditu; Medikuntzan Lizentziatua da, Laneko Medikuntzako espezializazioarekin, eta bere zaletasun gogokoenak irakurtzea eta zinemara joatea dira. Anabel duela gutxi martxan jarri den mediku-taldeko kide da eta taldearen arduraduna Iñaki Igarzabal da.

ULMA Hormigón Polímero negozioiak Berlinen polimeroei buruz egindako nazioarteko konferentzian (ICPIC) parte hartu du

■ ULMA Hormigón Polímero negozioiko Berrikuntza eta Garapeneko arduradunek ICPIC 2004 (International Congress on Polymers in Concrete) konferentzian parte hartu zuten Berlinen joan den ekainean. ICPIC konferentziaren hamaikagarren edizioak hormigoian aplikatutako polimeroen esparruan lehen mailako izaerari eutsi dio aurten ere, sortu zenetik 25 urte igaro diren arren.

Konferentzian parte hartu zuten 128 pertsonak industriaren, unibertsitatearen eta ikerketa-zentro-

en esparruetakoak ziren eta azken urteetan polimeroarekin aldatutako hormigoian eta polimero hormigoian egindako ikerketen eta aurreakuntzen berri eman zuten. ULMA Hormigón Polímero negozioiko arduradunek gehigarri polimerikoak hormigoi tradizionalaren aurrean gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari direla adierazi zuten, horren ezaugarri mekanikoak eta nibelazioarekin lotutakoak hobetzeko. Polimero hormigoia arintasuna, iragazgaitasuna eta erresistentzia kimikoa nabarmendu

ziren berriro ere; gainera, ezaugarri mekaniko bikainak ditu drainadurarako aurrefabrikatutako elementuetarako, isolamendurako eta erakuntzako beste hainbat esparruetarako.

ULMA Hormigón Polímero negozioa duela hiru urte ere izan zen ICPIC konferentzian eta esparru honetako aditu nagusiekin harremanak ezartzeko apustuan aurrera egin du, AEBetako Texasko unibertsitateko D. W. Fowler-ekin edo Japoniako Nihon unibertsitateko Y. Ohama-rekin harremanak estutuz.

ULMA Forja negozioiak Exxon-en homologazioa lortu du Fittingetarako

Joan den apirilean ULMA Forja negozioiko Fitting-ak merkatuko onenen kalitatea eskuratu zuen, EXXONen homologazioa lortu baitzuen fitting produktuen linean. Hainbat urtez gogor lan egin ondoren iritsi da homologazioa eta, besteak beste, merkatu amerikarrean sartzeko atea izatea espero da.

2000. urtean lan talde bat sortu zen ULMA Forja negozioan Fitting-aren inguruan, etorkizunera begira proiektu bat finkatzeko eta sustatzeko. Negozio honek, zuzenean edo zeharka, 24 pertsona inguru biltzen zituen. Talde horren helburua politika produktibo eta komertzial berezia ezartzea zen, ez bridaren luzapena egitea.

Une horretan kalitateari eta zerbitzuari eman zitzaizen lehentasuna, eta helburu globalizatzaile moduan EXXON homologazioa lortzea ezarri zen.

Orduetik eman diren urrats garrantzitsuenak honako hauek izan dira: gama erdira murriztea, azpikontrastak murriztea eta horiekin hitzartutako kalitatea ezartzea, prozesu guztien berrikuspena kalitatearen ikuspegitik, forjaketa-prozesuen berrikuspena eta berrikuntza: askotariko estanpak, diseinuen aldaketa, materialen aprobetxamendua eta abar. 2" baino gehiagoko fitting produkzioaren zati

bat, lehen kanpoan erosten zena, bertan fabrikatzea lortu da horrela. Bestalde, inbertsio plan bat ere egin da eta, orotara 3 milioi euro baino gehiagokoa. Inbertsio nagusia Gnutti delakoa izan da, duela gutxi fabrikatzen hasi dena.



ULMA Construcción negozioak sektoreko azoketan parte hartu du

■ Urteko lehenengo lauhilekoan, ULMA Construcción negozioa hainbat azokatan izan da: nazio mailan Vigoko MTC azokan martxoaren 18tik 21era, eta Bilboko CONSTRU-LAN azokan apirilaren 21etik 24ra; eta nazioartean, BAUMA azokan (Munich-en martxoaren 29tik apirilaren 4ra) eta EXPO-LIBYA (Tripolin maiatzaren 3tik 7ra) azokan.

ULMA Construcción negozioak azoka hauetan parte hartzean gure negozioaren irudiaren linea berriaren aurkezpena egin du, hala, nazioartean dugun proiektzioa sustatuz. Azoken aurretik komunikazio-lan garrantzitsua egin zen eta azken urtean bezero izandakoei mezu elektronikoa personalizatu bat bidali genien; azoken ondoren ere gure erakusmahai hartu genituen guztiei beste mezu bat bidali genien gure esker ona adieraziz. Aukera aprobetxatuz negozioaren katalogo berria argitaratu zen, eta produktuei buruzko informazioa jasotzen duten liburuxkez gain, enpresari eta bezeroei eskainitako zerbitzuei buruzko informazioa ere ageri da bertan, parte hartu dugun lanen argazkiak ezarriz.

MTC azoka oso egokia izan da ULMAk Vigo hirian duen presentzia erakusteko, biltegi osagarri berri baten bidez bezeroengana hurbilduz, eta Galiziako hegoaldean egin diren lanekin.

BAUMA azokak aukera paregabea eskaini zigun hainbat produktu berri aurkezteko, VR mahaia eta EP karga-besoa adibidez. Une honetan B+G esparruan garatzen ari diren aluminiozko karga-besoen prototipo bat ere erakutsi zen. Produktu hauek Frankfurtetik merkaturatzen dira Alemanian; ordezkari horrek beste edozein ordezkariak dituen merkataritza-eskumenak ditu urte hasiera-



tik, Teknologia Zentro gisa lan egiteaz gain.

BAUMA azokan izan dugun presentziak eragin handia izan du sektorean eta inguruko enpresen artean (lehiakideak). Produktuen aurkezpenean nahiz produktu horiek erakusteko moduan, bisitariari eskainitako arretan eta enpresaren irudian gertatutako aldaketek jabetu dira bisitariak eta horiek guztiek proiektzio handia izan dute, puntako enpresa, sormen handikoa, modernoa eta nazioartekoa dela ikusi baita.

Bestalde, aurtien CONSTRU-LAN azoka Bilboko erakusketa azoka berriaren inaugurazioarekin batera egin da eta lehenengo aldir parte hartu da bertan. Erakusketa horretan bisitarien % 28 Frantziatik, Portugaldik, Marokotik, Malaysiatik eta Arabiatik etorri dira. Espainiarren presentziari dagokionez, gehienak azoka antolatu duen autonomia erkidegokoak izan dira, eta ondoren autonomia erkidego hauetakoak etorri dira: Kantabria, Gaztela eta Leon, Nafarroa, Bartzelona eta Madril.

Azkenik, EXPO-LIBYAn ULMA Construcción negozioak izan duen presentzia azpimarratu behar da,

azoka horretan erreferentzia modura erakusmahai txiki batekin parte hartu baitu; horrela, arabiar herrialdeetan esku hartzeko bidea eman diezaiokeen proiektu handi batzuei buruzko informazioa bildu ahal izan du. Izan ere, proiektu horietarako garatzen ari diren soluzioek ULMAko produktuak erabiliko dituzte, kontratazioa gauzatu ahal izateko. Garrantzi handiko proiektuak dira, besteak beste: Third Ring Road, 25 km-ko saihezbidea, 33 zubi altxaturekin; trenbideen esparruko jarduerak, Egiptoko mugatik Tunisiako mugara 1.400 km-ko trenbidea egingo baita eta ibilbide horretan hainbat eta hainbat zubi eta pasabide altxatu beharko baitira; The Palm eta The World Dubain: bi proiektu hauek bi uharte artifizial dira, eta hauen gain edukiera handiko instalazio turistikoak eraiki behar dira; Burj Dubai, munduko dorrerik altuenaren eraikuntza, merkataritza jardueretarako eta bizitoki modura erabiltzeko; Dubai Marina, turismo gunea, luxuzko hotel ugari-koa; Hydropolis, ur azpiko lehen hotela egiteko proiektua, eta The new Airport Cargo Terminal, aireportu komertzial berria; duela gutxi iritsi zaizkigu berau aztertzekeo planoak.



Ulma Packaging negozioa Sea Food Processing azokan.


Maiatzean ULMA Packaging negozioak SEA FOOD Processing azokan parte hartu zuen, Bruselan. Arrainaren sektorerako erreferentzia-ko azoka da, eta 22 herrialdeetako 200 erakusketarik baino gehiagok beren berrikuntzak erakusten dituzte urtero. Oraingo honetan ULMAK berrikuntza modura arraina biltzeko mantenimendu txikiko makina bat aurkeztu zuen, erabat herdoilgaitza; makina hori bereziki sektore horretarako garatu da, izan ere, lan egiten den instalazioetan tenperatura oso baxua baita eta hezetasuna, berriz, oso handia.

ULMA Handling Systems negozioak pieza eta unitateen sailkapenerako sistema automatiko berezia merkaturatu du: SURFING SORTER MINI

■ ULMA Handling Systems negozioak azken urteetan daraman berrikuntza estrategiaren barnean, Surfing Sorter Mini sistema merkaturatzea aurreikusten du. Osagai txikietako eskarien prestakuntzarako diseinatutako sistema da. Sailkapen automatikorako sistema honek orduko 7.000 pieza arteko fluxu edukiera du eta, sisteman sartu edo induzitu ondoren, elementuak azkar sailkatzeko aukera ematen du.

Surfing Sorter Mini sistema eskariak prestatzeko eragiketak errazago eta fidagarritasun handiagoz egiteko diseinatu da eta, zehaztasuna bermatzeaz gain, sareko informazioa erabiltzeko aukera ematen du.

Gaur egun, enpresa askoren erronka nagusia eskarien prestakuntza sistema hobetzea da, horrela bezeroari



eskaintzen zaion zerbitzua hobetzeko aukera emango duten abantailak erdiesteko. Beraz, Surfing Sorter Mini deritzona sistema malgukin garatu da, beste sistema eta elementu automatiko batzuekin bateragarri izateko; horrela, sistema pertsonalizatuak garatzeko aukera emango du, fluxua, errotazioa, zerbitzu baldintzak eta beste faktore batzuk kontuan hartuta.



Sistema iraultzaile horri esker, abantaila lehiakorrek lortu daitezke unitateen eta piezen eskaeren prestatetan, eta denbora eta fidagarritasuna hobetzeko aukera ematen du; ondorioz, bezeroari eskaintzen zaion zerbitzua ere hobetu egingo da.



ULMA Carretillas Elevadoras negozioiko langileen igoera Aloñara.

Lehenengo orduan eguraldia oso ona ez bazen ere eta Aloña gainera behe laino eta zirimir artean iritsi arren, umore ona izan zen nagusi eta kirola eta adiskidetasuna izan ziren egun eder hartako protagonista. Xabier Guridi izan zen lehena eta ordubete eta bederatzi minutu behar izan zituen gutzira.

ULMA Agrícola izan da UNE-EN 13031-1 produktu-ziurtagiria lortu duen berotegien lehen egilea

ULMA Agrícola negozioak produktua berritu eta garatzeko prozesuekin jarraitu du eta, horri esker, UNE-EN 13031-1 arau europarraren arabera lehen produktu-ziurtagiria lortu du.


Arau hori normalizazio prozesu europar baten emaitza da, berotegien diseinuari eta kalkuluari dagokionez herrialdeetan zeuden arauak bateratzeko asmoz sortu zena; Espainian UNE 76.208/ 92 araua ordeztu du. Berotegien eraikuntzan eta sektorean arau hori ezartzea funtsezkoa izango da.

UNE 13031-1 arau europarrean, erresistentzia mekanikoari eta egonkortasunari buruzko printzipio eta baldintza bereziak, zerbitzuaren egoera eta proiektuaren iraupena eta landare eta laboreen produktiorako berotegi komertzialen eraikuntza zehazten dira.

ULMA Agrícola negozioiko departamentu teknikoak, bi urtez araua zehazteko AENOR-ek antolatutako

bileretan parte hartu ondoren, Madrilgo Unibertsitate Politeknikoan homologatu beharreko berotegiaren egiturari buruzko dokumentuak eta azterketak aurkeztu ditu. Madrilgo ETSIA laborategiek proiektuaren egituraren kalkuluei adostasuna eman ondoren, AENOR-eko teknikariek ULMAk Oñatin dituen instalazio industrialak bisitatu zituzten, ULMA Agrícola erakundearen ezarritako kalitate-sistemaren ikuskaritza egiteko, UNE-EN ISO 9001:2000 arauan adierazten diren baldintzak bete behar baititu.

Prozesua amaitzeko, ULMA Agrícola etxeak bere instalazioetan 600 m²-ko prototipoa eraiki zuen, eta bertan AENOR-eko teknikariek produktua ikuskatu ahal izan zuten eta muntaia-baldintza zorrotzak betetzen zirela egiaztatu zuten, zimendatze-piloteen distantzien tolerantziari, erretenen izaera bertikalari eta maldari eta egituraren zutabeei dagokienez.



Gaur egun, ULMA Agrícola da arau europar horren arabera AENOR-ek homologatutako produktua duen lehen fabrikatzailea, bakarra oraingoz. Europako herrialde askotan jada zenbait epe zehaztu dira, eta epe horietatik aurrera normalizazio-erakundeek arau hori onartu behar dute. Espainian, ezarpen-prozesua luze edo laburragoa izango da, berrikuntza honen aurrean sektoreak nola erantzuten duen ikusi behar da. Baina araua ezarriko da, garrantzi handia baitu eta berotegien sektoreari abantaila handiak ekarriko baitizkio. Etekin handienak nekazariak berak aterako ditu, izan ere, bere lan eremu geografikoari (haizea, elurra) eta landatuko duenari ondo doakion berotegia erosi ahal izango baitu.

ULMA Carretillas Elevadoras negozioiak Biltegiarako Diseinuzko Softwarea garatu du, bezero bakoitzarentzat egokiena den eskorga eredua zehazten duena

■ ULMA Carretillas Elevadoras negozioiako Kalitate eta Produktu departamentuak, kargekin lan egiten duten enpresek dituzten beharrei eraginkortasun handiagoz erantzun nahian, bezeroei igotzeko eskorga egokiena aukeratzen lagunduko dien sistema informatikoa garatu du.

Software horrek bezero bakoitzaren espazioa edo biltegia irudikatzen du eta kasu bakoitzean egokiena den igotzeko eskorga iradokitzen du; kasu bakoitzean kontuan hartzen diren ezaugarriak desberdinak izan daitezke, adibidez, erabili beharreko karga edo toki horretako espazioa. Sistema horrek, mugitu behar den kargaren eta biltegiaren arabera, bezeroari igotzeko eskorga eredu bat proposatuko dio.

Sistema informatiko horrek eskorga egokiena aukeratzen laguntzeaz gain, karga handiko lan egoeren simulazioak edo etorkizunean bezeroak izan ditzaketen egoerenak egin ditzake.

Programak laneko korridorearen zabalerari eta luzeari buruzko infor-



mazioa, karga kokatu beharko duen gehieneko altuera eta altuera txikiena, bertan mugituko diren kargen pisua eta dimentsioak, eskorgen erabilerari buruzko maiztasuna, eskorgen abiadura eta horrelako datuak eskatzen ditu.

Biltegia diseinatzeko software iraultzaile horrek, ULMA CARRETILLAS ELEVADORAS negozioiako bezeroei aholkularitza pertsonalizatua eskaintzeaz gain, bi eta hiru dimen-

tsiotako eskorgen irudien bidez leku horren konposizioak egiteko aukera ematen du. Sistema horrek baldintza normaletako lan egoeren simulazioak edo muturreko baldintzetako lan egoerenak egiten ditu, estatistika interesgarriak eskaintzen dizkie bezeroei, besteak beste makinak geldirik egingo duen denbora, lanerako behar duen abiadura, edo enpresari interesgarrienak iruditzen zaizkion datuak.

BA AL ZENEKIEN...

- Oñatiko Garapen eta Turismo Agentzia bideo bat sortzen eta garatzen ari da, "Oñatiren iragana, oraina eta etorkizuna" deritzona, Oñatiko herriaren aurkezpen berritzailea egiteko euskarri modura. Bisitariak gero eta jakin min handiagoa erakusten dutela kontuan hartuta, "Oñati, iragana eta etorkizuna" proiektuarekin herriaren ikuspegi orokorra eman nahi da: ondare historiko eta kulturala, natur guneak, gaur egungo zerbitzuak eta enpresak ahaztu gabe (kooperatibak, unibertsitatea, ostalaritza-zerbitzuak etab.). Bideo modura garatuko den proiektu honek 10 minutuko iraupena izango du eta 3 hizkuntza erabiliko dira egiteko: euskara, gaztelania eta ingelesa. Irudiek indar handia izango dute, inguruek ere zer erakutsi handia baitute.

ULMA Handling Systems eta ULMA Carretillas Elevadoras Bartzelonako Sil' 04 azokan berriro

Maiatzean Bartzelonan Logistikako Nazioarteko Topaketan (SIL) seigarren edizioa izan zen eta, bertan, ULMA Handling Systems negozioak Saillkapen Automatikorako Sistema berria aurkeztu zuen: SURFING SORTER MINI. Horrez gain, Pick to Light teknologiaren aplikazioak eta Garraio eta Biltegitratze Sistema Automatikoak ere erakutsi zituen. Bestalde, ULMA Handling Systems negozioak ICILEk antolatutako Erakusketa Gunean parte hartu zuen, topaketa antolatu zutenekin batera. Eta bertan, karga arinak biltegitratzeko eta hauen ontziak erabiltzeko diseinatutako Miniload sistema konbinatu bat eta Pick to Light sistema bat aurkeztu zituen, picking gune berean aldi berean zenbait langileri lan egiteko aukera ematen diena. Gainera, ULMA Carretillas Elevadoras negozioa are indar handiagoz itzuli



da, Mitsubishiko N Serieko Eskorga Termikoen eredu berriak, alboko kargetarako HUBTEX orgak eta gauzak elkarren gainean biltzeko eta erdi mailako eskaerak prestatzeko orga berriak aurkeztu ondoren; horrela, gaur egun merkatuan eskaintzen diren kontrapisuko eskorgen, norabide anitzekoen eta barrukoek aukera zabala are gehiago osatu da.

Universo plazan kokatutako erakusmahaietan, alboko kargako HUBTEX orgen ereduak, 2123 elektrikoa eta 3050 termikoa, aurkeztu zituen, korridore estuetan kargekin lan egiteko diseinatutakoak biak; horrela, ohiko orgekin alderatuta % 50 arteko espazioa aurrez daiteke.

ULMA Packaging negozioak Alacanteko BONNYSA enpresan hamabigarren makinaren instalazioa amaitu du. Enpresa honek Kanarietako platanoen produkzioan lan egiten du

■ Egunean 100.000 kg-ko produkzioa duen enpresa hau estatu mailan platanoen ekoizle nagusi bihurtu da, Kanarietan zenbat sail eta ontziratzeke nabean bertan heltzeko kamerak baititu.

Astero itsaso bidez edukiontzi handiak hartzen ditu Alacanteko, Valentziako eta Castelloko portuetan eta, ondoren, prestatu eta Espainiako estatu osoan banatzen ditu.





ULMA Agrícola negozioiak instalazio bat egin du **Indiako Best Roses enpresarentzat**

■ Best Roses Biotech Ltd. enpresa arrosen laborantzan lan egiten duen enpresa da eta Mausharin, Indiako Gujarat estatuan dago. ULMA Agrícola negozioan jarri du konfiantza bere azken instalazioa egiteko. Proiektu berri horren bidez, eba-kitako arrosen aldaeretan Indiako esportatzaile nagusienetarikoa bihurtu da Best Roses Japoniako eta Australiako merkatuetan, eta aldaera horien artean pasio sarea nabar-

mentu da, horixe baita balio erantsi handienekoa eta eskari handiena duena.

ULMA Agricolak instalatutako berotegiak hektarea erdiko 12 modulu ditu eta, horrela, 6 hektareako azalera estaltzen dute guztira, aireztapen zenitalak eta albokoak ezarri eta motor horiei eragiteko ULMA Agricolan bertan egin diren automatismoak erabiliz. Horrela, proiektuari soluzio integrala eskaini zaio.



ULMA Forja Dusseldorfeko Tube azokan. Maiatzean, ULMAk erakusmahaia jarri zuen sektorean erreferentzia den azoka horretan. Aurten Alemaniako hiri horretan izan da. Irudian, ULMA Forjaren erakusmahaia ikus daiteke. Bertan, nazioarteko merkatuan jada izen handia hartu duen briden gama erakutsi zen.

Ulma Taldea Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroetan

ULMA Taldeak Euskal Herriko Unibertsitatearekin parte hartu du Udako Ikastaroen XXIII. edizioan. Donostiako Miramar Jauregian izango dira ikastaro horiek, udan. Zehazki ULMAren lankidetzak Futbolero Prestakuntza Profesionalerako Ikastarora zuzenduko da, datorren abuztuko 26tik 28ra.

ULMAk, futboleko Real Sociedad elkartearekin hitzarmena duten hainbat taldetako ikasleek esku har dezaten, 100 beka eskaini dizkio Real Sociedad taldeari.

Azkenik, ikastaroaren helburu nagusienetarikoa futbolarien prestakuntza profesionalerako planak ezartzeko beharra dagoela argi azaltzea da, gero beren jardunean baliagarri izateko.





Ruper Ordorika

Musikaria

RUPER ORDORIKA Oñatin jaio zen 1956.ean eta iaz atera zuen bere 15. diska, 'Kantuok jartzen ditut'. Elkarrizketa honetan, musikaz gain, Debagoieneko egoera sozioekonomiko eta kulturalaz mintzo da eta oso kritiko azaltzen da kooperatibismoarekin lotuta dagoen lanaren kulturak eragindako hainbat kontraesanarekin.

"Lanaren kulturaren erabat murgilduta bizi gara"

12 urterekin alde egin zenuen jaoiterritik eta orain dela 5 urte itzuli zinen berriro. Oñatitik bertatik posible al da musikaren negozioa hurbiletik jarraitzea, edo hobeto hiriburu batean egotea? Hobeto hiriburu batean. Gune handietan medioak egoten dira eta norbera agerian ez egotea igerritzen da. Baina, tira, ez daukat inolako ardurarik alde horretatik. Nahiz eta nomada samarra izan, beti eduki dut gogoia hona itzultzeko.

Dena dela, zuk badaukazu nazioarteko harreman sendoak, batez ere Estatu Batuetan. Nola lortzen duzu kontaktu horiek mantentzen? Urteak dira honetan nabilela eta tarte bat eman nuen

New Yorken eta beste bat Ingalaterran. Harremanak zaintzea oso garrantzitsua da niretzat. Gainera, musikaria baino lehenago musikazalea izan naiz eta naiz. Gaur egun, gainera, Internetek erretzen ditu harreman hauek, lanerako ere bai.

Zer moduz funtzionatzen ari da zure azken lana: Kantuok jartzen ditut? Zorionez, salmenta aldetik gauzak aurrera doaz eta azkena beti izaten da nire lanik salduena. Kasu honetan, ere bai.

Orduan, ez al duzu igerri 'top-manta'ren efektua? Ikusi eta erosi egin dut nire azken diska 'top manta' delako horretan. Baina ez, ez

dauka nigan eraginik. Azkenengo urteetan, estatu mailan, ia %40 jeitsi dira salmentak. Horrek esan nahi du orain gehiago saltzen baduzu, proportzioan, orain dela 10 urte baina askoz gehiago saltzen duzula. Baina euskarri bera, diska, krisialdian dago eta 'top-manta' Internetetik

┌
Musikaren munduan
aldaketa handi
baten hasieran
gaude
└

jeisten denaren ondoan, ez da ezer. Aldaketa kualitatibo handi baten hasieran gaude. Musika merkatu bezala aldatu egingo da.

Bestalde, badirudi musikaren desbalorizazio bat ere ematen ari dela.

Bai eta disketxe haundien eraginak harreman zuzena dauka fenomeno honekin. Konpainiek sinistarazi egin diote erosleari diska bat beste produktu bat dela eta eurak, konpainiak, kapaz direla artista bat sortzeko eta promozionatzeko. Ondorioz, jendeak poliki-poliki jokatu du diskaren aurrean beste produktuekin jokatzeko duen bezala. Garagardo bat 10 aldiz merkeago eros badezakezu, merkeago erosi egingo duzu, noski. Diskari afektoaren eta kulturaren kutsu guztia kendu diote eta plazererako erabiltzen den kontsumo gaia bilakatu. Marketing berak eragin du diskaren desbalorizazioa.

Euskal Herrian ere, zaila da gaur egun nabarmentzea kantari edo musikari bezala. Zu hasi zinenen baino zailagoa da orain? Ez dakit. Orain zaila da baina lehen ere bai. Ni 1980.ean hasi nintzen eta oso momentu zaila zen. Kantu politikoaren ondamendia gertatu zen orduan eta gerotxoago Rock Radikala hasi zen, baina tartean egon ziren hiruzpalu urte oso zailak. Lehen diska bat grabatzea heroizidatzen bat zen, orain, berriz, merkatua lehertuta dago, diskak agertzen dira noiznahi. Orain zaila dena ez da musika entzutea, isilik egotea baizik. Eta gainera, jendeak ze musika gehiago behar du?

Gaiaz aldatuko dugu erabat orain eta gizarteko gaiei tartetxo bat zabalduko diegu. Eskualde berezi batean bizi gara eta bertan Kooperatibismoak gu guztion bizitza sozioekonomikoan eragina du. Zer deritzozu honi? Hemen betidanik egon dira enpresa haundiak. Kooperatibek, hala ere, asko markatzen dute bizi-tza, eta lanaren kulturaren daude murgilduta gure herri hauek erabat, goitik behera.

Ondorioz, badago uniformizazio arazo handi bat hemen, nahiz eta gai batzuk ia ezin diren ikutu, denok baikara epaile eta parte.

Debagoienean garapen industrial eta ekonomiko oso garaia daukagu. Kulturalki ere maila bereko garapena izan da zure ustez? Uste dut baietz, egon dela, baina norabide ez interesgarri batean, hain zuzen. Hemen lana da inportanteena eta, lanari eusteko, egin behar badira hiru txanda, ba

Alemaniarren arketipoa bilakatzen ari gara: sorlekua lanlekua da eta aisialdia pasatzera Mallorcara goaz

aurrera. Inork ez du aztertzen horrek dakarren bizi kalitatearen galera izugarriak eta normalizat jotzen da. Badirudi Debagoienari buruzko progresoarekin lotutako diagnosis bat egin dela nonbait. Horren arauera, hemen jendeak nahi duena horrela

lan egitea dela eta bigarren etxebizitza bat erosi kostaldean. Bilakatzen ari gara alemanen arketipoa. Sorlekua da lanlekua eta aisialdia pasatzera Mallorcara joango gara, herria ondatu eta gero. Egubakoitzean kotxea hartu etxepean eta eskiatzera joan, hori da hemengo bizimodua, oso jende gutxi pasatzen du aisialdia hemen. Baina gero botatzen duzu horrelako ideiak eta txokokeriak direla aurpegiatzen dizute.

Ezagutzen al dituzu ULMaren inguruan dauden proiektuak: CUT (Ciudad Universitaria Tecnológica) delakoa? Unibertsitatea egotea beti gauza positiboa da, baina proiektuaren izena ere nahiko esanguratsua da. Gauza konplexuak dira aztertzen: lehen enpresak familiekin lotzen ziren, orain ez dakigu nora helduko garen baina argi dagoena da kooperatibismoak kontraesan asko dakartzala.

Bukatzeko, zer falta zaio Oñatiri eta zer dauka soberan? Nik herri honetan daukat maitasun kontu bat eta nire begiak ez dira zorrotzenak izango. Arazo larriena da etxebizitzarena. Espekulazio izugarria dago. Zorionez, erdialdeko inguru zabala ezin izango dute bota. Baina ni beldur naiz beste dena ez ote den arrabal handi bat bilakatzen ari.




BALANTZE SOZIA

Beste urte batez, gure kooperatibaren eredu soziala finkatzeko nahiarekin eta asmoarekin jarraitzen dugu. Horretarako, pertsonen erakunde gisa definitzen gaituzten funtsezko arloak lantzen jarraitzen dugu. Sortutako Enpleguaren Kalitatea eta jarraitkortasuna, Segurtasuna eta Lan-osasuna, Elkartasuna eta gure ingurune sozio-enpresarialarekiko Konpromiso Soziala dira 2003. urtean, argi eta garbi landu ditugun gaietako batzuk.

Enplegua sortzen jarraitzen dugu; Hedapenaren hamarkada


Enplegu osoaren bilakaera (filialtako enplegua barne) gorakoa izan da, inolako zalantzarik gabe. Eta gauza bera gertatu da enplegu kooperatiboarekin ere; hau da, jardunean dauden bazkide kopuruarekin. Alboko grafikoan, 1994-2003 urteetako bilakaerari erreparatu ahal izango diogu.

1994-2003. Hamar urteko bilakaera



Era berean, gero eta garrantzitsuagoa da Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo sortzen dugun enplegua, 2003. urteko Enpleguaren banaketa geografikoaren grafikoak adierazten duen bezala.

Enpleguaren banaketa geografikoa. 2003. urtea.



Azken urteotako hazkunde handiaren ondorioz, zaila izan da enplegu kooperatiboa jatorriko kooperatibetan %80 baino handiagoa izateko helburu enpresarialari eustea. Baina esan beharra dago, 2003 ekitaldian asko hurbildu dela; horri esker, 2004an helburu hori gainditzea espero dugu.

LA; Aurrera goaz

Elkartasun instituzionala, guztion mesedetan

MCCn sartzek gero eta elkartasun-konpromiso handiagoak hartzera eraman gaitu. Ekitaldi honetan, honako kopuru hauek banatu ditugu:

- Gure emaitzen %10 (1.673.083 euro) Interkooperazioaren Funts Nagusira.
- Heziketako eta kooperatiba-sustapeneko funtsen (HKSF) %15; hau da, emaitza globalen %1,5 (226.080 euro) Heziketako eta Interkooperatiba-sustapeneko funtsera (HISF).
- HKSF-en %10; hau da, emaitzen %1 (150.720 euro) Mondragon Unibertsitatea proiektura bideratu dugu.



Segurtasuna eta Lan-osasuna; baliabideak hobetzen

Beste maila batean, Segurtasun eta Lan-osasun arloko hainbat Negoziotan izandako gorakada nabarmena azpimarratu dugu. Baliabideak sustatu dira, arlo horretan lan egiten duten langileak, batez ere; eta horren guztiaren emaitza, epe laburre-ra edo ertainera jasotzea espero dugu. Taldeko zerbitzu mankomunatuaren baitako zerbitzu medikuak harreman estu-estua du Negozioetako Lan-arrikuak Prebenitzeko Arloekin. Horiek guztiek langileen osasuna eta segurtasuna zaintzeko funtzioak betetzen dituzte.

Gure konpromiso sozialarekin aurrera jarraitzen dugu



HKSFren banaketan, epigrafeen arabera berrikusi dugu banaketa politika, eta irizpide berriak finkatu ditugu datozen ekitaldietara begira. Partida horretara zuzendutako kopuru osoa 1.507.203 eurokoa da, eta HISFra zuzendutako partidak eta aurrerago aipatutako MUra bideratutako ezohiko laguntzak kenduz gero, ondorengo kontzeptu hauei jarraituz egin da banaketa:

• Kooperatiba-sustapeneko funtsa	%27
• Trebakuntza proiektuak	%17
• Interkooperazio proiektuak	%16
• Hezkuntza, Ikerketa eta Garapen erakundeei laguntza	%20
• Sustapen sozio-kulturaleko proiektuei laguntza	%20

Aurreko ekitaldian emandako laguntzetatik, kopurua eta garrantzia kontuan hartuta, honako hauek aipatu behar ditugu:

- Mondragon Unibertsitatea proiektua
- Kirola sustatzen duen KIROLGI Fundazioari laguntza
- CEGASArekin batera, ULMA-CEGASA txirindulari talde amateurraren babesle. Taldeak kirol-emaitza handiak lortu ditu.
- Vuelta Ciclista y Gran Premio Castilla y Leon-eko babesle
- ALOÑA-MENDIri laguntza
- Kulturari dagokionez, hainbat musika, dantza eta antzerki eskolari laguntza.
- Donostiako Orfeoiarekin eta Guggenheim Bilbao Museoarekin lankidetzak.
- Asistentzia-erakunde eta GKE ugariarekin lankidetzak –MUNDUKIDE proiektua azpimarratuz–, bai eta gure delegazioetatik hurbil dauden hainbat erakunderi laguntza ere.

Amaitzeko, erretiratutakoei egindako omenaldia azpimarratu behar dugu, azken omenaldia egin zenetik hiru urte igaro direnez, 2003ko urrian festa hura errepikatzeak aukera izan genuen, egun alai eta hunkigarria bizitzeko aukera izanik.



**Iker Lukas Ugarte
(1972-2004)**

**Lan istripuan hildako
lankide eta laguna
gogoratzuz**

*Bizitzak bere bidean badu
ezkutuko mugarrira
iragana ta etorkizuna
lotzen ditun uztarrira.
Baina denborak ez du ahazten
Zure berezko IRRIA:
Elkarlanari eusten dioen
beharrezko oinarria.
Gure artean utzi zenuen
betiko oroigarria.*



*En el curso de la vida
existe un límite
en el que el pasado
y el futuro
se unen entre sí.
Pero el tiempo
no hace olvidar
La SONRISA que
te caracterizaba:
La que hacía posible
el trabajo en común
La SONRISA que
nos dejaste
como recuerdo.*



ULMA Handling Systems, Logistikaren ikuspegi integrala

ULMA Handling Systems negozioaren jarduera Handling Systems Materialen Ingeniaritza Integralera zuzentzen da. 15 urte baino gehiago pasatu dira Banaketa Automatikoaren (BA) eta Fabrikazio Automatikoaren (FA) esparruetan Biltegitratze eta Garraio Sistema Automatikoko soluzio logistiko integraletan aukera zabala eskaintzen hasi zirenetik.

Giza Kapitala garatzeko ardura bere gain hartuta, ULMA Handling Systems negozioak ingeniartzaren esparrua indartzeko apustu garbia egin du, merkaturako eskaerei aurrea hartuz eta sistema eta zerbitzu berriak eskaini nahian. Hasieratik, sektorean lider den DAIFUKU enpresarekin lankidetzaren harreman profesional eta teknologikoari eutsi dio, horrela bitarteko tekniko aurreratuenak eta proiektu bakoitzari erraz moldatzen zaizkionak eskura izateko.

ULMA Handling Systems etxeak erreferentzia puntu garrantzitsua izatea lortu du, Espainiako eta Portugalgo merkaturan AS/RS sistemetakoa soluzio automatikoen garapenean lider izatera iritsi baita. Hala ere, multinazional hauen

arteak lehiakide handiak ditu: Thyssen, Vanderlande, Siemens, Shaffer, Viastore edota Mecalux, besteak beste. Gaur egun nazioartera hedatzeko prozesuan buru-belarri sartuta dabil eta sare tekniko-komertzial sendoa osatu du, Espainian, Frantzia, Brasilen, Italian eta Holandan ordezkariak dituenak.

ULMA Handling Systems negozioaren kalitate sistema bere bezeroen, hornitzaileen eta barneko langileen beharrik auzeratu zuzentzen da, negozioaren prozesuak kudeatuz, etengabeko hobekuntzan oinarrituta eta erreferentzia esparru modura EFQM ereduak erabiliz.

Horrela, bikaintasun hori eskuratzeko ahalegina argi islatzen du ISO 9001:2000 araua eman izanak, LLOYD'S REGISTER QUALITY ASSURANCE (LRQA) britainiar enpresak ziurtatu duenez.

Horrek estatuko merkaturan nahiz nazioartean duen posizio lehiakorra sendotzen du eta erakundearen oinarri den Erabateko Kalitatera zuzendutako ikuspegi indartzen du.

IÑAKI ARRIOLA- ULMA Handling Systems negozioaren gerentea

16 urte "besterik" ez dira pasatu OINAKAR kooperatiba hartako 3 lagun negozio erronka berrietara abiatu ginenetik. Horrelaxe hasi zen gure bidaia, Handling Systems Materialen Ingeniaritza jarduera bat sortzeko asmoz. Helburua gure inguruaren ezagutzan oinarrituta negozio aberasgarria egitea zen.

AS/RS Sistema Automatikoetan espainiar merkatuan puntako ingeniarietza zerbitzua izateko aukera eman digun gakoak berrikuntzak sortzen digun grina izan dela uste dugu. Horrez gain, ULMA Handling Systems negozioko talde osoak egindako ahaleginak posizio horretara iristeko eta posizio horretan irauteko aukera eman digu eta ematen digu egun ere, gure enpresa proiektua gauzatzeko egunero egiten dugun ahaleginaren fruitu baita.

Giza faktore hori da gure eragile nagusia, eta ULMA Handling Systems negozioaren etorkizunean parte hartzen jarraitzeko ilusioari eusteko lan egiten jarraitu behar dugu, etorkizun horrek gidatuko baikaitu nazioartean zabalteko prozesuan.

Munduari gure ateak zabaltea da etorkizunean izan behar dugun erronka nagusia, Europara eta Hego Amerikara jauzi egitea eta, gauden tokian gaudela, gure ingeniarietza lana erreferentzia bihurtzea.

Nazioartera hedatzeak gure proiektuak Brasilen, Frantzia, Italian eta Portugalen ezartzeko eta Holandan, Brasilen eta Frantzia langileak izateko aukera eman digu.

Ondorioz, internazionalizazio kontzeptua hedatzea eta nazioarteko kudeaketarako profesionalak prestatzea, beharra ez ezik garatzeko aukera bat ere bada, etorkizunean gure posizioa ziurtatzen eta gure enpresa eta kooperatiba ereduak beste helarazten lagunduko diguna.

Eta zergatik ez, bidaia honetan hurrengo helmuga Hego Europan eta Hego Amerikan... Handling System Materialen esparruan lider izan daitekeela pentsatu behar dugu.



MARTIN ETXANIZ- ULMA Handling Systems negozioaren presidentea

Lehen-lehenik, gure lagun bat, IKER LUKAS, hartu nahi nuke gogoan; lan istripu batean hil zen, Madril. 32 urte besterik ez bazituen ere, 9 urte baino gehiagoko esperientzia zuen ULMA Handling Systems negozioan, eta ez da erraza izango hark utzi digun lekua betetzea. Baina are zailagoa izango zaigu Iker bera, gure laguna, ahaztea.

Haren oroimena gertuago izateko, hemendik hilabete batzuetara inauguratuko dugun planta berria, UHS jardueretara zuzenduko dena, hari eskaini nahi diogu.

Planta berri hori garrantzi handiko mugarrria da gure negozioaren ibilbidean: gure eguneroko zereginetarako hobeto moldatutako instalazioak izateaz gain, berrikuntzaren esparruko jardueretarako ere eremu zabalak izango ditugu, prototipo berrien garapenean aplikatzeko.

UHSk azken urteetan izugarritzko hazkundea izan du, eta bai salmentetan eta bai langileei dagokienez, hazkunde hori % 100etik gorakoa izan da azken 5 urteetan. Hazkunde hori argi eta garbi nabarmentzen da logistikako sistema automatikoen merkatu espainiarrean gure negozioak betetzen duen lider tokiak. Beteranoenen esperientziari eta guztion lanari eta bultzadari esker, lehen lekuetara iritsi ahal izan gara eta posizio horri eutsi ahal izan zaio.

Puntu horretan, egunez egun UHSko taldeak azken urte hauetan egin duen ahalegin izugarria aitortu behar dut, baina ahalegin horren emaitzak nabarmenak izan dira. Guztiok ezagutu eta saritu behar dugun ahalegina eta emaitza da, eta horrekin batera, taldearen lan baldintzak hobetzeko bitartekoak jarri behar ditugu. Horretan ari gara, guztion laguntzaz.

Gure etorkizunari sendoa aurre egiteko baditugu ezagutza, esperientzia, erabakimena eta bitartekoak, gure kooperatiba estila inoiz ahaztu gabe, gauden tokian gaudela horixe delako geure ezaugarri nagusia.



Zerbitzuak



Produktuak

- > AS/RS sistemak Banaketa Automatikoan (BA)
- > AS/RS sistemak Fabrikazio Automatikoan (FA),
- > Sorting sistemak
- > Mantentze-sistema integralak (Conveyor, paletizadoreak...)
- > PTL sistemak (Pick to Light)

PROFIL ESTRATEGIKOA

- Espainiako eta Portugalgo merkatuetan lider lekua sendotzea.
- Gure presentzia sendotzea Frantzia, Brasilen eta Italian.
- Bezeroarekin eta honen gogobetetze mailarekin hartutako konpromisoa sustatzea.
- Teknologiaren garapena (I+G+b): bezeroen eta oro har merkatuaren zerbitzura egongo diren produktu berriak osatzea eta garatzea.
- Prozesuen eta adierazleen kudeaketa eredu batean oinarritutako kudeaketa estrategia.
- Hedatzea eta helbideratze estrategikoa, prozesuen eta antolamendu egituraren bidez.
- Kudeaketa-estrategia baten garapena, pertsonen parte-hartzea eta gaitasuna sustatzeko.
- ...



"Kooperatiba baten funtzionamendu ona, guztiona den aldetik, denon ardura da"

Ignacio Maiztegi

Bere aita aguazila izanda, Oñatiko Udaletxean jaiotzea egokitu zitzaion Ignacio Maiztegiri, 1927. urtean. 30 urte zituelarik, eta diru apur gehiago irabazteko asmotan, Talleres Maiztegui sortu zuen garaje txiki batean, hainbat lagunekin batera. Hura izan zen ULMAren hazia.

Ignacio, kontaiguzu nola izan zen Talleres Maizteguiren sorrera.

1957ko uztailaren 18an, 8 eguneko soldata hartu, eta Garay tailerretik alde egin nuen, han ugazabak beti agintzen ibiltzen ziren eta sekula ezer eman ez. Beste bost lagunekin batera, eta zerbait gehiago irabazteko asmotan, garaje batean tailer bat sortu genuen. Lehen tornua erosteko behar genituen 17.000 pesetak lortzeko, zoruen pare ibili ginen. Hasierak ez ziren batere errazak izan.

Gero, handik urte gutxira, 1961ean, ULMA sortu zenuten. Lehenengo jarentea Julio Saiz izan zenuten, orain dela gutxi

hildakoa. Nola gogoratzen duzu lankide hau?

Beti egoten nintzen berarekin. Katalanak, gure aldean, beste estilo batekoak ziren. Oso txintxoak lanean, ez zuten sekula parrandarik egingen. Juliok goizean karajilo batekin gosaltzen zuen eta gero, lan eta lan egun guztian, ez zeukan beste gauzarik buruan. Langileon artean, askotan ideia ezberdinak izaten genituen lana aurrera ateratzeko orduan, batak alde batera pentsatu, eta besteak bestera egin guran ibiltzen ginen. Hark oreka bilatzen zuen. Bera eta Jose Vidal aurretik enpresa munduan ibilitakoa zirenez, eskarmentu handiko pertsonak, guri negozioetarako falta zitzaigun beste ikuspuntu bat apor-

tatzen ziguten. Askotan baten bat kanpotik etorri beharra dago, gu geu konturatzeko esku artean zer daukagun. Hori izan zen Julio Saiz eta Jose Vidalekin gertatu zena.

Arrasaten eta Oñatin, 50-60 urte haietan, gaur egun mundu mailako erreferente diren enpresa kooperatibak sortu ziren. Zergatik une hartan eta leku honetan?

On Jose Maria Arizmendiari esker izan zen. Lehenengo Arrasaten osatu zuen talde famatu hura Gorroñogoitia eta beste horiekin, eta gero gudan ere influentzia handia izan zuen bere pentsamenduak. Guk bakarrik eguneroko gorabeheretan erreparatzen genuen, baina

hark etorkizuneko bisio bat zeukan, zeren eta jendeak gero eta diru gehiago nahi zuen, baina ezer aurreratu barik. Horrela sortu zuen Euskadiko Kutxa. Hark ere irakatsi zigun kooperatibaren abantailak: enpresa ondo joatea denori komeni zaigula. Beste enpresetan, zerbait gaizki irtetzen bada, ugazabaren kontua da. Norberana izanez gero, kooperatiban bezala, denon ardura da.

Makina bat gauza ikusiko zenuen hainbeste urtetan. Kontaiguzu, zein da lanean ikusi duzun gauzarik arraroena?

Alemaniarrek dirua nola egiten duten. Kanpoan egindako produktuak itsasontzietan ekarri gordeta, gero eurek, alemaniarrek, xaflatxo bat ipini izenarekin eta Made In Germany bezala saldu. Horrela funtzionatzen dute alemaniarrek. Hau ikusteak asko harritu nau ni.

Begibistakoa da ULMAk azken urteetan hartu duen tamaina eta indarra. Etorkizunari begira, zure ustetan zer nolako aldaketak izango dira?

Kanpora irten beharra dago, gero eta gehiago. Hemengo jendea joaten da Txinara edo Indiara edo beste herrialde batzuetara. Harreman horiek ondo eramanez gero eta elkar lotuta geratuz gero, etorkizun ona izango dugu. Elkarrekin burrukan hasiz gero, jai daukagu. Elkar ulertu eta lankide-tzan aritu behar dugu, denok batera.

Orain jarraitzen duzu ULMAren egunerokoa?

Ez, bakarrik bazkariaren bat dagoeanean edo horrelakoetan. Ni barruan lanean nabilela ez zait gustatu sekula kanpoko jendea begira egotea. Horregatik, ez naiz lantokira inoiz joaten.

“Arizmendiarrietak etorkizuneko bisioa zeukan. Jendeak gero eta diru gehiago nahi zuen, baina ezer aurreratu barik”

Eta orain, gaur egun, zer nolako bizimodua eroaten al duzu, Ignacio?

Bizimodua? Ba, goizean egunkariari errepassoa ematen diot, goitik behera eta behetik gora, batzuetan ere bai. Gero, badaukat garaje bat, eta han ematen dut denbora txapuzak egiten. Eskulana gustatzen zait niri, ez naiz etxean gelditzen diren horietakoa, hori ez da nireta-

ko. Garaje ondoan badago tailer bat, Maiztegui izenekoa, kasualidadez, non motozerrak eta horrelakoak konponetzen diren eta batzutan laguntza ematen diet. Saltsa hori gustatzen zait niri.

Eta zer eskatzen diozu zuk bizitzari orain?

Osasuna. Besterik ez.





KOLESTEROLA;

Zer da eta zer esan nahi du kolesterola altu izateak?

Kolesterola organismoan dugun koipe mota bat da, pertsona guztiok duguna. Besteak beste, kolesterola erabiltzen dugu zelulen mintza egiteko, behazun-gatzetarako eta hormona garrantzitsu batzuetarako; hormona horien bidez kontrolatzen da Tentsio Arteriala eta kanpo eta barne erasoetatik babesten gaituzte.

Kolesterola odol zirkulazioaz baliatzen da ehun batzuetatik besteetara joateko. Odolaren barnean mugitzeko, kolesterolak proteina mota batzuei lotuta joan behar du: HDL deiturikoei lotuta batzuetan (kolesterol ona) eta LDL deiturikoei lotuta besteetan (kolesterol txarra).

LDLri lotutako kolesterola, muga batzuetara iristen denean, arterien hormetan itsatsi ohi da eta lesio mota bat eragiten du: "ateroma plaka"; honek gerora arteriosklerosia eragingo du. Gaixotasun honek arteriak hondatzen ditu eta zurrundu eta estutu egiten ditu; ondorioz, ehunetara iristen den odol-emia murriztu egiten da. Odol-emia murrizten denez, organoek oxigeno gutxiago jasoko dute, eta horrek zelula horien heriotza eragin dezake. Praktikan, ondorio horiek guztiak hainbat modutara ager daitezke, adibidez, bihotzari eragiten badio, miokardio-infartua eragin dezake, edota burmuinari eragiten badio, hemiplegia. Horregatik, kolesterol gehiegi izateak alferrrikako arrisku baten aurrean jarriko gaitu, saihets daitekeen arrisku baten aurrean.

Tratamendu egokia desberdina da pertsona bakoitzarentzat. Pertsona batzuek beren kolesterola elikadura apur bat aldatuz eta kirola eginez kontrola dezakete:

Kolesterol eta triglizeridoen mailak * (mg/dl)

<u>Kolesterol osoa</u>	
200dik behera	Ona
200-239	Muga
240tik gora	Altua

<u>LDL kolesterola</u>	
100dik behera	Onena
100-129	la onena/onenaren hurrena
130-159	Muga
160-189	Altua
190etik gora	Oso altua

<u>HDL kolesterola</u>	
40tik gora	Ona

<u>Triglizeridoak</u>	
150etik behera	Normala
150-199	Muga
200-499	Altua
500dik gora	Oso altua

* Bihotzeko gaixotasunen aurrekaririk gabeko helduentzat.

Aukera daitezkeen elikagaiak

- Zerealak
- Fruta freskoa
- Barazkiak
- Arraina
- Oilaskoa

Tartean jan daitezkeen elikagaiak

- Fruta eta barazkiak
- Koiperik eta kolesterolik gabeko gailetak
- Gatzik gabeko bizkotxoak
- Mikrouhinen labean egiteko koipe gutxiko krispetak
- Zukuak
- Sorbeteak eta jogurt gaingabetuak

Jatetxe batean jaten dugunerako aholkuak

- Saiatu labean edo parrillan egindako janariak jaten eta janari frijituak saihesten.
- Saltsak saihestu.
- Janaurrekoetan saiatu gaztarekin egindakoak saihesten.
- Saltsa plateraren alde batean jartzeko eskatu.

Medikuaren aholkua:

Kirola eta dieta osasungarria

- **Egunero edo maiztasunez kirola egitea** kolesterol "onaren" maila, HDL izenez ezagutzen denarena, handitu egiten du. HDLk odoleko LDL suntsitzen laguntzen du. Bihotzerako osasungarria den kirola egitea astean hiru aldiz 20 minutuz kirola egitean datza. Bihotzeko gaixotasunak izateko arriskua izugarri murriztu dezake kirola eta ariketa egiteak, eta gainera pisua galtzen laguntzen du.
- **Dieta osasungarria** koipeak eta batik bat koipeki saturatuak saihestea da (batez ere animalienagandik lortzen direnak).
- **Arrisku faktoreak kontrolatzea** (hipertentsio arteriala, loditasuna,...)
- Kolesterol altua duten pertsona batzuetan ez dira nahikoa dieta eta kirola. **Kolesterola murrizteko sendagaiak** hainbat modutara lan egiten dute. Hauek dira ohikoenak: organismoak LDL ekoiztea atzeratzea eta organismoak kolesterolaren gehiegizko kopuru hori digestioan laguntzen duten azido erabilgarri bihurtzea. Sendagaiek ez dute kolesterol altua sendatzen, antibiotikoek belarriko infekzioak sendatzen dituzten bezala, baina jende gehienarentzat kolesterolari kontrolpean eusteko oinarritzkoak izan daitezke.



Iñaki Igarzabal, ULMA Taldeko Laneko Osasunaren saileko arduraduna.

Zein da laneko segurtasunaren egoera ULMA n eta zein



Javier Belloso
ULMA Construcción

ULMA Construcción negozioian Laneko Arriskuei Aurre Hartzeko Kudeaketa Sistema prestatuta dugu (prebentziarako prozeduren bitartez). Prozedura horiek segurtasun eta osasun batzordeetan onartu dira. 2003ko abenduan onartutako prebentzio-legearen erreforma berriekin aldageta asko daude. Honako prozedurak ezarrita ditugu jada: arriskuen ebaluazioa, arriskuen identifikazioa, istripuen eta jazoeren ikerketa, programatutako ikuskapenak, zuzentzeko eta prebentzioko ekintzak. Eta ezarpen-fasean: jardueren koordinazioa, azpikontratisten kontrola, pertsonak babesteko ekipoen aukeraketa eta kontrola, produktu kimikoen erostaketa eta homologazioa etab. 2004ko Prebentziarako Kudeaketa Planean honako helburu hau dugu: istripu larrik ez gertatzea. Prebentzioko hainbat jarduketara egingo ditugu: lan-ekipoak RD 1215/97 dekretuaren arabera egokitzea, ordena eta garbitasuna ezartzea, eskorgen gidarientzako baimentze-prozedura bat ezartzea, materialak biltegiartzeko sistemak egokitzea; osasunaren kontrako kalte potentzialak deuseztatzea, horretarako zaratak eta keak neurtuz eta lanpostuen hobekuntza ergonomikoa sustatuz, zarata ahal beste murriztea, soldadura-instalazioak egokitzea, osasun-zainketa eta abar.



Eider Ozerinjauregi
ULMA Carretillas Elevadoras

ULMA Carretillas Elevadoras negozioaren jardueraren printzipioa etengabeko hobekuntza ezartzea da, langileen segurtasuna eta osasuna bermatuko dituen sistema baten bitartez. 2003. urtean hasi zen Lagunaro-Mondragón-en ERAIKIZ ereduaren oinarritutako Laneko Arriskuei Aurre Hartzeko Kudeaketa Sistemaren diseinua eta ezarpena. ULMA Carretillas negozioan, Prebentzioren Urteroko Plangintzan SGPR garapenean txertatuta dagoenean, aurre honako hauei eman zaie lehentasuna: Enpresa Jardueren Koordinazioaren ezarpenari, ekipo eta instalazio kritikoaren kontrolari eta lana modu seguruan egiteko ohitura onen jarraitzearen argitalpenari. Bide horretatik, SGPR gradualki ezartzen joatea lortu nahi dugu eta, bestalde, honako hauek ere bai: maila guztietan partehartzea eta konpromisoa bermatuko duen kultura positibo bat sortzea, langileak beren zereginak segurtasunez egitera bultzatuko dituen komunikazio eraginkorra lortzea, langile guztiei segurtasunaren eta osasunaren esparruetan partehartze arduratsua egiten lagunduko dien gaitasunen sustapena eta zuzendaritzaren lidergo argia eta aktiboa, hala, kudeaketa-kulturaren babesa sustatzeko eta garatzeko. Sistemaren diseinua, ezarpena eta etengabeko hobekuntza gidatu egin behar da. Gidatzea ez da "ontzat ematea"; gidatzeak arriskuaren kudeaketan parte-hartzearen oinarritutako jarraia inplikatzeko du eta emaitza zehatzak eskatzen ditu.



Joxe Angel Idigoras
ULMA Forja

2003. urtean urte ona izan zen, aurreikusitakoak baino ezberkopuru gutxiago izan baitziren. 2004. urteari dagokionez, orain arte 9 istripu izan ditugu, eta indize hori oso handia da (152,87, 2003ko 108,84aren aurrean). Lan taldea PRL ERAIKIZ Kudeaketa Sistema definitzen hasi da Lagunaro Mondragónekina batera. Enpresako koordinazioari dagokionez, prozedura 5 jardueratan jarri dugu martxan. Bestalde, ONDOANen Larrialdietarako Plana prestatu da eta egokitzen ari gara. Prestakuntza ere landu dugu eta sartzen den langile berri bakoitzak hasierako prestakuntza jasotzen du. Duela gutxi igotzeko eskorga eta garabiak erabiltzen dituzten langileak autorizatzekeo prozesuari ekin diogu. Arriskuen ebaluazioari dagokionez, lanpostuen %85ean egin da eta gainerakoak aurrean egingo dira. Hala ere, aitortu beharra dugu pentsatu baino gehiago kostatzen ari zaigula ekintza zuzentzaileak kudeaketa-programa garatzea. Proiektu berriei dagokionez, definizio fasean dagoen PRL-ren ikuspegitik esku hartu dugu horietan eta, behin proiektua amaitu ondoren, harrera egiten zaio.

alderdi hobe ditzakegu?



Maier Alberdi

ULMA Handling Systems

Laneko Arriskuei Aurre Hartzeko Legearen Erreformak prebentzioaren integrazioa nahitazko ikusten du, enpresek langileen segurtasuna eta osasuna berma dezaten. Integrazio hori errealitate bihurtzeko abiapuntua Laneko Arriskuei Aurre Hartzeko Kudeaketa Sistema bat diseinatzea da. Prebentzioa integratzeko metodologia osatzen duten etapak honako hauek dira: ezarpena, kudeaketa eta aplikazioa, jarraipena, mantenimendua, aldizkako kontrolak eta kudeaketaren ikuskapena.

ULMA Handling Systems negozioko sistema guztiaren euskarri den dokumentua Prebentzioaren Eskuliburuan definitutakoa da, eta bertan laneko politika, prozedurak eta prozesuak, antolamenduaren egitura eta horren funtzioak eta erantzukizunak biltzen dira. Eskuliburu hori amaitzen ari gara une honetan eta laster zabalduko da UHSko langileen artean.

Gaur egungo egoerari dagokionez, definitutako Sistema horren ezarpena egiten ari gara, eta ziurrenik hauxe izango da etaparik gogorrena eta zailena; horregatik, behar-beharrezkoa izango da guztion laguntza eta parte-hartzea. Bestalde, urirako derrigorrezko lege-auditoria egitea aurrekusi da eta hori ere lagungarri izango da Sistema ezartzeko, garatzeko eta optimizatzeko, une honetan dauden lan-baldintzak ikusteko aukera eskaintzen duen balioespen-tresna baita.




Etor Arregi

ULMA Hormigón Polímero

Gaur egun, prebentzioaren esparruko gure jarduera lan baldintzetan zuzenean jardutean oinarritzen da eta, horretarako, produkzio-lerroetan eta instalazio orokorretan hobekuntzak egiten ditugu. Hobekuntza ekintza horiek definitzen dituen eta ordezkarien iradokizunak jasotzen dituen oinarritzko erakundea Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordea da; Batzorde horretan teknikariek, fabrikazio-arduradunek, ordezkariak eta zuzendaritzako kideek parte hartzen dute. Hobekuntza ekintza horien beste iturri bat TPMren bitartez jasotako da, eta horren bidez, pertsona guztiak dute segurtasunarekin lotutako hobekuntzak eskatzeko eta proposatzeko aukera.

Laneko Osasunari dagokionez, aurten zarataren eta argiztapenaren neurketak egin dira eta baita ingurumenari dagokionak ere. Produktu kimikoak biltegiratzeko eta manipulatzeko orduan hobekuntzak egiten ari gara, hala, hurrengo fase batean hondakinen sailkapena eta kudeaketa hobetzeko.

Etorkizunari begira, bide honetatik jarraituko dugu, ahal izanez gero baliabide eta denbora gehiago eskainiz, baina, horrez gain, Eraikiz erudian oinarritutako Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Kudeaketa Sistemaren diseinua eta ezarpena ere garatu nahi dugu. Legeak ezartzen dituen betebeharrak formalizatu gain, benetako erroka prebentzio-kultura bat sortzea da, produkzio-prozesuan hobekuntzak ekarriko dizkiguna.



Ainhoa Diez

ULMA Packaging

Gure negozioan, Eraikiz kudeaketa-eredia eta OHSAS 18001 araua kontuan hartuz, Laneko Arriskuei Aurre Hartzeko Sistema egokitu dugu gure enpresaren antolamenduaren arabera, Kalitatea, Ingurumena eta PRL ere txertatuz. Gure helburuak lanetik ondorioztatutako arriskuak deuseztatzea eta kalitatezko lan bitzta lortzea dira. Helburu horiek lortzeko jardueren etengabeko plangintza egin behar dugu, emaitzak balioetsi behar ditugu, hala, berehala doitu ahal izateko eta etengabeko hobekuntza lortzeko.

Jardueren Koordinazioaren prozedura betetzeko ahalegina egiten ari gara, edukiaren eta gure jardueraren aldetik pisu handia baitu gure erakundearen: definitu ditugun barne-arauak zorrotz bete behar ditugu eta sistematikoki lan egin behar dugu, hala, gauzak ongi egiten ari garen egiaztatu ahal izateko. Bestalde, gure erroketako bat gure teknikariek kanpoan lan egiten dutenean beren lana modu seguruan egiteko beharrezko baliabideak izatea da eta, bestalde, langileen segurtasunaren eta osasunaren kontrola kontuan hartzea makinak diseinatzeko proiektuak egiten ditugunean. Azken batean, langile guztiak sentsibilizatzea eta kontzientziazatzea funtsezkoa da gure helburuak lortzeko.



40 urte elkarrekin

ULMAKO LEHENENGO ORDEZKARITZAK.

Irudietan, ULMAren bi ordezkari-tza, lehenengoetakoak. Goiko argazkian Granadako garai bateko ordezkari-tza ageri da, Asegrako Industrialdean kokatuta zegoena, 1973. urtekoa gutxi gorabehera. Beheko argazkia Valladolideko garai bateko ordezkari-tzari dagokio; Los Pajaritos auzoko Puentelarreina kalean kokatuta zegoen eta 1979. urtekoa da gutxi gorabehera.



GRANADAKO ORDEZKARITZA. 1973



VALLADOLIDEKO ORDEZKARITZA. 1979

agenda eta iradokizunak

ERRETIROA HARTU DUTENAK:

2004ko maiatzaren 1etik abuztuaren 31ra ULMA Taldean erretiroa hartutakoak.



TEODORO TRAPOTE



JUAN ARZA



IGNACIO ELORZA



AGUSTIN ELORZA

Eskerrik asko guztioi, eta goza dezazuela! Zorionak



IRADOKIZUNAK

Animatu eta jarraitu iradokizun gehiago bidaltzen, honako helbideetara:

ULMA Taldea
Zerbitzu Zentralak
Otañui Zuhaitzia, 3 – 13 p.k.
20560 OÑATI
Erref.: BEGIRA
begira@ulma.es

A ULMA S. COOP.

En Oñati está ubicada una empresa con solera, que manda sus productos por la geografía entera.

Esta empresa se dedica a productos comerciales, vallas, andamios y como no, los puntales.

Otro artículo a destacar, por nuestro esfuerzo y esmero para brindarle a la audiencia, es la gama de Invernaderos.

Un producto de valía es el Forjado Recuperable, que ahorra mano de obra y queda impecable.

En nuestra sección supermap fabricamos maquinaria para envolver el pan, pues la limpieza es necesaria.

Con alta tecnología y de largo rendimiento tenemos las Batidoras y también las P-300.

Nuestros productos tienen buena fama en el mercado, por lo que ULMA S. Coop. siempre nos tiene a su lado.



Alfredo Corrales
ULMA Construcción negozioko erretiratua

Sevilla, 1985eko ekainaren 2a

Idatz dezagun gure historia guztion artean!



70'S

Gure irakurleei;

Hasiera batean gure asmoa Begira aldizkariaren zenbaki honekin batera 70eko urteetako ULMAren gehigarri historikoa banatzea zen arren, azkenean, urriko zenbakiarekin batera banatuko dugu. Gehigarri historiko horretan hainbat kontu jasoko ditugu: Inaxio Irizarrek garai haiei buruz egindako kronika, Roman Balanzategik, Lagun-Aroko Lehendakariak, garai haiei buruz duen ikuspegia edo hirurogeita hamarreko urteetako inkesta Angel Elguerorekin, Jose Antonio Mendikuterekin eta Anton Inzarekin. Horrez gain, mahaingurua ere izango dugu eta garai hartako pertsonaia garrantzitsuen iritziak entzun ahal izango ditugu, ULMA eta ENARA kooperatiben urte haietako informazio sozio-enpresarialaren berri ere jasoz.

Bestalde, lehenengo urte haietako agiriak, argazkiak, bideoak, albisteak etab. baldin badituzue, ondoko helbidera bidaltzea eskertuko genizueke, aldizkarian argitaratu ahal izateko:

Postaz;

ULMA

E-mailez; **begira@ulma.es**

Zerbitzu Zentralak

Otadui Zuhaitzia, 3 – 13 p.k.

20560 OÑATI (Gipuzkoa)

Azkenik, edozer gauza argitzea nahi baduzue edo edozein zalantza baldin baduzue, Mila Barrutiarengana jo dezakezue ULMA Taldeko Departamentu Nagusietan (Telefona: 943 03 49 00). Eskerrik asko aurrez emandako laguntzarengatik.

Har ezazue parte proiektu berri honetan!